

**Gaia: Erabakia, prozedura ebazteko gehienezko epea igarotzea eteteari buruzkoa.**

Espedientea: 2025-2027 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia (2024ko abenduaren 3ko Agindua. 2024ko abenduaren 17ko EHAA, 244. zk.)

Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Saila

2025-2027 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak iragarri zituen Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2024ko abenduaren 3ko Agindua dela eta (2024ko abenduaren 17ko EHAA, 244. zk.). Sail honetan izapidetzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar da (10.3 artikulua); izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukari buruz irizpidea zehazteko, horrelako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.

Hori dela eta, jakinarazten dugu 2025ko martxoaren 7an eskatu zaiola Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari (Unibasq) aipatutako txostena emateko eta bidaltzeko, administrazio-espedienteari gehitzeko.

13.4 artikuluan sei hilabeteko gehieneko epea ezartzen da ebazpena emateko, deialdia ezartzen duen agindua EHAA-n argitaratzen denetik kontatzen hasita. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura bat ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko epea igarotzea eten ahal izango da, besteak beste, administrazio bereko edo beste administrazio bateko organo bati nahitaezko txostenak eskatzen zaizkionean. Etendura-epe hori ez da inola ere hiru hilabetetik gorakoa izango.

Horren arabera,

ERABAKITZEN DUT

2025-2027 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak iragarri zituen Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburuaren 2024ko abenduaren 3ko Agindua dela eta (2024ko abenduaren 17ko EHAA, 244. zk.). Sail honetan izapidetzen ari den espedientearen Ebazteko gehienezko epea igarotzea etetea, hiru hilabetez, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak eman beharko duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena espedientera gehitu arte, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziakoa (Unibasq). Epe hori igarotakoan, kontaketa berriro hasiko da automatikoki.



Erabaki hau prozeduran interesatuta dauden guztiei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean.


2022-03-11

Amaia Esquisabel Alegría
ZIENTZIA POLITIKAKO ZUZENDARIA